# munduak guztiontzat beharko luke

## BEROA ELKARTEA

Ane parkera joan da jolas egitera. Bertan ezagutu ditu Maddi eta Antton, anai-arreba oso bereziak.







Xarpa oso berezia da. Parkean topatu nuen bakarrik eta triste, eta etxera eraman nuen. Bere harrerako familia gara orain. Xarpak eta nik antza handia daukagu eta horregatik maite dut hainbeste
Zergatik duzue antza, ba?
Amatxok eta aitatxok asko maite ninduten, baina ezin ninduten behar bezala zaindu. Nire etxea txuri-beltzekoa zen, ez zegoen kolorerik, eta etxe handi batera eraman ninduten beste ume askorekin batera
Aita, ama eta hiruok joan ginen etxe hartara Maddiren bila. Orain, gurekin bizi da


Gure etxean badaude koloreak, guretzat eta Maddirentzat adina. Horregatik erabaki genuen gurera ekartzea
Orain bi aita eta bi ama ditut. Batzuekin bizi naiz eta besteak bisitatzera ere joaten naiz


Eta ez duzu zure etxera bueltatu nahi?
Nik badakit nire aitatxok eta amatxok koloretako etxe bat eskaini nahi didatela, baina orain ezin dute. Horregatik pentsatu dute hobeto egongo naizela kolorerik falta ez zaion beste etxe batean
Gure etxea politagoa da Maddi dagoenetik




## BEROA

GIPUZKOAKO HARRERA FAMILIEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE FAMILIAS ACOGEDORAS DE GIPUZKOA

Badira, arrazoi desberdinak tarteko, jatorrizko familiarekin bizi ezin duten haurrak. Haur horiei familia bat eta etxe bat eskaintzen die harrerak.



Harrera behin behineko neurria da. Ez da adopzioa, ezta adopziorako urrats bat ere.

Haur bat harreran hartzea erabakitzen duten familiei laguntzen die Beroak. Uneoro behar duten laguntza eta babesa eskaintzen die.



www.asberoa.com
asociacionberoa@asberoa.com
telefonoa: 943245604
Ategorrieta etorbidea 79, 3. solairua
20013 Donostia